urdaibai

basque reserve



# Urdaibaiko oinezko ibilbideak

# Senderismo en Urdaibai

Urdaibaiko mendi-ibilien gida aurkezten dizuegu. Bertan, gure eskualdea esploratzeko Ibilbideen Sarea aurkituko duzue.

Natura-, kultura- eta paisaia-altxorretara hurbiltzeko ibilbideen eskaintza: basoak, ur-jauziak, ibai-pasealekuak, baselizak, gailurrak, hegaztien behatokiak, eraketa geologikoak, mitologia, trikuharriak...

Urdaibai oinez ezagutzeko gonbidapena, gure jendeaz, gure paisaia aberatsaz eta gure gastronomia bereziaz gozatzeko.

Abentura honi esker, esperientzia paregabez bete ahal izango duzue motxila.

Izan ere, Urdaibai benetako paradisua da lurraldea oinez ezagutu nahi duenarentzat, galtzeko eta gozatzeko lekua.

Os presentamos la Guía de senderismo de Urdaibai. En ella descubrirás una Red de Senderos para explorar nuestra comarca.

Una oferta de recorridos para acercarnos a sus tesoros naturales, culturales y paisajísticos: bosques, cascadas, paseos fluviales, ermitas, cimas, observatorios de aves, formaciones geológicas, mitología, dólmenes…

Una invitación para conocer Urdaibai a pie, para disfrutar de nuestra gente, nuestro atractivo paisaje y de nuestra singular gastronomía.

Una aventura que os pemitirá llenar la mochila de experiencias únicas.

Y es que Urdaibai es un auténtico paraíso para quien quiera descubrir un territorio a pie, un lugar donde perderse y disfrutar.




# Urdaibai
## Ongi etorri




*Debekatuta dago aurretiaz URREMENDIren baimenik gabe lan honen edukiak osorik edo zati batean erabiltzea.*

*Queda prohibida la reproducción total o parcial de esta publicación sin autorización previa de URREMENDI.*

© URREMENDI. Turismo Urdaibai 2022

Proiektuaren zuzendaritza / Dirección del proyecto: Urremendi
Koordinazioa, diseinua eta maketazioa / Coordinación, diseño y maquetación: © Orbela
Itzulpena / Traducción (Euskera): Hori- Hori
Argazkiak / Fotografías: Urremendi, Orbela eta Argazki irekia (azalean eta 1-5-23.orrialdeetan).

# Ongi etorri Urdaibaira...
# Bienvenidos a Urdaibai...

Ongi etorri Urdaibaiko Biosfera Erreserbara, Turismo Jasangarriaren Europako Gutunari atxikitako natura-gunera. Beste urrats bat eman dugu gure lurraldearekin bat datorren turismoa lortzeko bidean.

Gure eskualdea Urdaibaiko Ibilbide Sarearen bidez ezagutzera gonbidatzen zaituztegu, errespetuz, ingurune bikain honetaz eta bere historia zoragarriaz gozatuz. Hori egitera animatzen zaituztegu, zuen bidean ahalik eta aztarnarik txikiena utziz... baina paisaiak zuengan arrastoa uztea ahalbidetuz.

Sentitu txorien soinua, itsas brisa, Kantauriko freskotasuna, artadiaren berdetasuna eta gure hareatzen dibertsitatea. Gozatu gure jendearen beroaz, gure gastronomiaren aberastasunaz eta gure hizkuntzaz.

Ibili, ezagutu eta gozatu Urdaibaiko Biosfera Erreserba bezalako toki berezi honetaz.

Os damos la bienvenida a la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, un espacio natural adherido a la Carta Europea de Turismo Sostenible. Hemos dado un nuevo paso hacia un turismo acorde con nuestro territorio.

Os invitamos a descubrir nuestra comarca a través de la Red de Senderos de Urdaibai, de forma respetuosa, disfrutando de este explendido entorno y su apasionante historia. Os animamos a hacerlo dejando la menor huella posible a vuestro paso... pero permitiendo que el paisaje deje huella en vosotros.

Sentid el sonido de los pájaros, la brisa marina, el frescor del Cantábrico, el verdor del encinar y la diversidad de nuestros arenales. Disfrutad del calor de nuestra gente, de la riqueza de nuestra gastronomía y de nuestro idioma milenario.

Caminad, descubrid y disfrutad de un enclave singular como es la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.

## Turismo jasangarria Urdaibaien







## Turismo sostenible en Urdaibai

# Aurkibidea Índice














4 Urdaibaiko Ibilbideen Sarea
Red de Senderos de Urdaibai

6 Autoa aparkatu...
eta modu jasangarrian mugituko gara
Aparcamos el coche...
y nos movemos de forma sostenible

7 Aukeratu zure neurriko ibilbidea
Elige un itinerario a tu medida

8 Mendi-ibiliak
Senderismo

9 Ikurrak
Leyenda

11 Urdaibaiko ibilbide laburrak
Senderos de Pequeño Recorrido de Urdaibai

33 Urdaibaiko Ibilbide luzeak
Senderos de Gran Recorrido de Urdaibai

42 Mendi-ibiliak baino gehiago
Más que senderismo

44 Informazio praktikoa
Información práctica

# ibilbideak




12
PR-BI 160
Ibilbidea txakolinaren itzalpean / Caminando a la sombra del txakoli





14
PR-BI 161
Artadiaren bihotz-bihotzean / En pleno corazón del encinar



PR-BI 163
Errota erreka batetik ibilbidea / Recorrido por un arroyo molinero





16



PR-BI 165
Itsaso aldera ibilbidea
Ruta hacia el mar





18



PR-BI 167
Golako ibibidea
Senda del Golako





20





22
PR-BI 174
Iluntzar, Urdaibaiko begiratokia / Iluntzar, mirador de Urdaibai



PR-BI 176
Begirada bat iragan megalitikoari / Una mirada al pasado megalítico





24





26
PR-BI 180
Edertasun handiko haranetatik / Por los valles encantados



PR-BI 181
Estuarioaren bihotzetik ibilbidea / Por el corazón del estuario





28





30
PR-BI 182
Barnealdeko bideetan barrena / Por los caminos del interior





34
GR 38
Ardoaren eta Arrainaren ibilbidea / Ruta del Vino y del Pescado





38
GR 123
Bizkaiko bira
Vuelta a Bizkaia


# recorridos

# Urdaibaiko ibilbide sarea

## Red de Senderos de Urdaibai

10 Ibilbide Laburrek (PR) eta 2 Ibilbide Luzek (GR) osatzen dute Urdaibaiko egungo mendi-ibilien eskaintza. Ibilbide sare zabal bat da, gure eskualdeko lekurik erakargarrienetara hurbilduko gaituena, eta gure herriek kontu handiz kontserbatzen jakin dituzten altxorretako batzuk erakutsiko dizkigu.

10 Senderos de Pequeño Recorrido (PR) y 2 Senderos de Gran Recorrido (GR) forman la actual oferta senderista de Urdaibai. Se trata de una amplia Red de senderos, que nos acercará a los lugares más atractivos de nuestra comarca y nos descubrirá algunos de los tesoros que con gran cuidado han sabido conservar nuestros pueblos.




Lurraldea
Un territorio


GR 123
Burgoa
BERMEO
Garbola
Landaren
MUNDAKA
Demiku
PR-BI 170
Portuondo
Katillotxu
SUKARRIETA
Atzazpi
PR-BI 160
Axpe
BUSTURIA
GR 38
Sollube
Altamira
Mape
San Kristobal
Antzora
PR-BI 161
Atxarre
Kanala
Ogoño
ELANTXOBE
PR-BI 165
IBARRANGELU
Natxitua
GR 123
EA
I / N
GAUTEGIZ-ARTEAGA
Ereñozar
MURUETA
PR-BI 163
Santimamiñe
Atxondo
Karabizuneta
FORUA
KORTEZUBI
Oma
PR-BI 180
Ikazuneta
Oka
PR-BI 181
Oma
ELEXALDE-NABARNIZ
Kosnoaga
AJANGIZ
Iluntzar
PR-BI 174
Arrola
GERNIKA-LUMO
ARRATZU
PR-BI 167
MUXIKA
GR 38
Kurtzero
Zarra
PR-BI 182
Golako
Bizkargi
ELEXALDE-MENDATA
Arratzu
Atxei
Berrekondo
Gorozika
Albiz
Zugastieta
Ganbe
GR 38.1
Ibarruri
Torrenkantera
Astoagana
GR 38
Maume
Oiz
AMOREBIETA-ETXANO
Muniketagana
Abiapuntua
Punto de inicio
Ibilbide laburra
Sendero de Pequeño Recorrido
Desbideratzea
Derivación
Ibilbide luzea
Sendero de Gran Recorrido
Donejakue bidea
Camino de Santiago
Autobusa abiapuntuan
Acceso en bus
Trena abiapuntuan
Acceso en tren


behatu
observa


ibili
recorre


ezagutu
descubre


gozatu
disfruta

# Autoa aparkatu...
## ... eta modu jasangarrian mugituko gara

# Aparcamos el coche...
## ... y nos desplazamos de forma sostenible

Aparka dezagun autoa eta goza dezagun gure lurraldearekin bat datorren mugikortasun iraunkorraz.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbak itsasadarraren bi ertzak lotzen dituen garraio publikoko zerbitzu bat du, gure herri guztietara iristeko aukera ematen duena.

Gainera, asmo handiko proiektu bat oinezkoentzako bideen eta bidegorrien sare bat sortzen ari da, etorkizunean Urdaibaiko estuarioa inguratzen duten bideetatik ibiltzea eta Elantxobe Matxitxakorekin eta Gaztelugatxerekin lotzea ahalbidetuko duena. Proiektu horren zati bat dagoeneko gauzatuta dago, eta, hala, goiko estuariotik, Ibarrangelua eta Laida eta Lagako hondartzen arteko kostaldeko bideetatik edo Muruetatik Bermeora joateko estuariotik hurbilen dauden bideetatik ibil gaitezke.

Urdaibaiko Ibilbideen Sareak bide horietako batzuk zeharkatzen ditu eta gure eskualdeko altxor handienetako batzuetara hurbiltzen gaitu.

Aparquemos el coche y disfrutemos de una movilidad sostenible, acorde con nuestro territorio.

La Reserva de la Biosfera de Urdaibai cuenta con un servicio de transporte público que une ambas márgenes de la ría y que permite acceder a todos nuestros pueblos.

Además, un ambicioso proyecto está diseñando una red de vías peatonales y bidegorris que en un futuro permitirán recorrer los caminos que bordean el estuario de Urdaibai y unir Elantxobe con Matxitxako y Gaztelugatxe. Parte de este proyecto ha sido ya ejecutado y así, podemos recorrer el estuario superior, los caminos de la costa entre Ibarrangelua y sus playas de Laida y Laga o caminar desde Murueta a Bermeo por los caminos más cercanos al estuario.

La Red de Senderos de Urdaibai recorre parte de estos caminos y nos acerca a algunos de los mayores tesoros de nuestra comarca.



# Aukeratu zure neurriko ibilbidea...

# Elige un itinerario a tu medida...

Hemen eskaintzen dizkizugun Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ibilbideek fitxa bat dute. Bertan, bakoitzari dagokion izena eta matrikula, datu teknikoak (distantzia, gehieneko malda eta denbora g.g.b.) daude, eta MIDE deritzon balorazioa. Metodo hori oso zabalduta dago txangozaleen artean, eta bidezidorraren zailtasuna nolabait zehaztea ahalbidetzen du.

Datu horiek, ibilbidearen deskribapenarekin eta mapan jasotako baliabide eta puntu interesgarrien eskaintzarekin batera, praktikoak izango dira bilatzen duzun ibilbidea aukeratzen laguntzeko.

Ibilbide guztiek informazio-panelak dituzte hasierako puntuetan, eta gidak eta track-ak deskargatzeko aukera dago:

Los senderos de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, que a continuación describimos cuentan con una ficha compuesta por el nombre y matrícula que corresponde al sendero, sus datos técnicos (distancia, desnivel máximo y tiempo estimado) y la valoración MIDE, un método muy extendido entre excursionistas que permite estimar la dificultad del sendero.

Estos datos, junto a la descripción del itinerario y su oferta de recursos y puntos de interés recogidos en el mapa serán prácticos a la hora de ayudarte a elegir el itinerario que buscas.

Todos los senderos cuentan con paneles informativos en los puntos de inicio y la posibilidad de descarga de sus guías y tracks en:

www.turismourdaibai.com

MIDE

## Txangoei buruzko informazio metodoa

## Método de información de excursiones

www.montanasegura.com

Metodoak honako alderdi hauen balorazioa jasotzen du (ingurunea, ibilbidea, desplazamendua eta esfortzua), 1etik 5era bitarteko puntuazioarekin, 1 zailtasun-maila txikiena izanik. Urdaibaiko ibilbideek ez dute inolaz ere 3. balorazioa gainditzen; beraz, erraz egin daitezke, nahiz eta natura-ingurunearen berezko arriskuetatik salbuetsita ez egon.

Este método recoge la valoración de los siguientes aspectos (medio, itinerario, desplazamiento y esfuerzo) con una puntuación del 1 al 5, siendo el 1 el menor grado de dificultad. Los senderos de Urdaibai no sobrepasan en ningún caso la valoración 3, lo que indica que son fáciles de recorrer, aunque no estén exentos de dificultades propias del medio natural.

| | |
|---|---|
| INGURUNEA<br>Ingurune naturalaren gogortasuna | MEDIO<br>Severidad del Medio Natural |
| IBILBIDEA<br>Ibilbidean orientatzeko zailtasuna | ITINERARIO<br>Orientación en el Itinerario |
| DESPLAZAMENDUA<br>Lekualdatzeko zailtasuna | DESPLAZAMIENTO<br>Dificultad en el desplazamiento |
| ESFORTZUA<br>Beharrezko ahalegina | ESFUERZO<br>Cantidad del esfuerzo necesario |

# Mendi-ibiliak. Ibili, ezagutu eta gozatu
# Senderismo. Camina, descubre y disfruta

Mendi-ibiliak aire zabaleko jarduerak dira, eta bide, zidor eta komunikazio-bide zaharrak oinez egiteko aukera ematen digute, munduko edozein lekutan dagoen ingurune naturalera, ondarera, kulturara, jendearengana eta ohituretara hurbilduz.

Ibilaldi segurua bermatzeko, Ibilbide Homologatua sortu zen. Ibilbide mota hori behar bezala seinaleztatuta eta identifikatuta dago GR® marken bidez Ibilbide Luzeetan, edo PR® markaren bidez Ibilbide Laburretan. Ibilbide motaren arabera, honako marka hauek aurki ditzakegu Urdaibain:




Biak gurutzatzen diren tarteetan, lehentasuna ematen zaio GR markei.

El senderismo es una actividad al aire libre, que nos permite recorrer a pie caminos, senderos y antiguas vías de comunicación, acercándonos al entorno natural, patrimonio, cultura, gentes y costumbres de un lugar en cualquier parte del mundo.

Con el objetivo de garantizar una práctica del senderismo segura se creó la figura de Sendero Homologado, que es un itinerario debidamente señalizado e identificado mediante las marcas de GR® en los Senderos de Gran Recorrido, o PR® en los de Pequeño Recorrido. Dependiendo del tipo de sendero podremos encontrar las siguientes marcas en Urdaibai:




En los tramos donde ambos se cruzan, se da prioridad a la señalización del GR.

## Ibiltariaren dekalogoa — Decálogo del senderista

Ibiltzera irten aurretik, prestatu ondo eraman behar duzuna, eta esan nora zoazen.



Antes de salir a caminar prepara bien lo que tengas que llevar y deja dicho a dónde vas.

Gogoratu fauna eta paisaia behatzeko prismatikoak oso erabilgarriak direla.



Recuerda que para observar la fauna y el paisaje son muy útiles los prismáticos.

Utzi erromadak aurkitu dituzun bezala eta errespetatu debeku-seinaleak.



Deja las cancelas como las hayas encontrado y respeta las señales de prohibición.

Ez enbarazu egin inguruko faunari eta abereei, eta ez egin zaratarik



No molestes a la fauna ni al ganado de la zona y evita hacer ruido.

Ez eraman animalia basatirik etxera, ezta lorerik edo landarerik ere.



No lleves animales salvajes a casa, ni arranques flores ni plantas.

Ez zaborrik utzi. Beste pertsona batzuek utzitakoa eramaten lagundu dezakezu.



No abandones basura. Puedes ayudar llevándote lo que otras personas han olvidado.

Etxera itzultzean, ez ahaztu kaparrarik daramazun ondo begiratzea.



De regreso a casa no olvides revisarte bien por si llevas alguna garrapata.



Ibilbide bakoitzak mapa bat du eta bertan jarraitu beharreko bidea irudikatzen da eta natura-, kultura- eta paisaia-intereseko baliabide nagusiak eta inguruko zerbitzuak (turismo-bulegoak, tabernak, jatetxeak, ostatuak...) jasotzen dira.

Cada sendero cuenta con un mapa donde se traza el recorrido y se localizan los principales recursos de interés natural, cultural y paisajístico, así como los servicios cercanos (oficinas de turismo, bares, restaurantes, alojamientos...).

# ikurrak leyenda

- Abiapuntua / Punto de partida
- Turismo bulegoa / Oficina de turismo
- Autobus geralekua / Parada de bus
- Tren geltokia / Parada de tren
- Iturria / Fuente
- Kobazuloa / Cueva
- Gotorlekua / Castro
- Erromatarren aztarnategia / Yacimiento romano
- Torrea - Gaztelua / Torre - Castillo
- Eliza / Iglesia
- Baseliza / Ermita
- Galtzada / Calzada
- Erdi Aroko zubia / Puente Medieval
- Errota - burdinola / Molino - ferrería
- Garbitokia / Lavadero
- Monumentu megalitikoa / Monumento megalítico
- Leiho aurrerromanikoa / Ventana prerrománica
- Elurzuloa / Nevera
- Garaia / Hórreo
- Presa / Presa
- Karobia / Calero
- Egurtegia-lastetegia / Pajar-leñera
- Ferratokia / Potro de herrar
- Gailurra / Cima
- Ikuspegi panoramikoa / Vista panorámica
- Natura 2000 sarea / Red Natura 2000
- Naturgune interesgarria / Interés natural
- Hegaztien behatokia / Observatorio de aves
- Urdaibai Bird Center
- Atsedengunea / Área recreativa
- Hondartza / Playa
- Mahats-parrak/txakolina / Emparrados / txakoli.
- Baso margotua / Bosque pintado
- Taberna-jatetxea / Bar-restaurante
- Lo egiteko lekua / Alojamiento
- Kanpina / Camping
- Gaztandegia / Quesería
- Aparkalekua / Aparcamiento
- Autokarabanen a./ A. Autocaravanas
- Itsasargia / Faro
- Ekoetxea - Urdaibai
- Kontu handiz ibiltzeko lekuak (errepideak, trenbideak, arrisku-eremuak..)/ Zonas donde extremar la precaución (carreteras, vía de ferrocarril, zonas de riesgo..)

*Ibilbide bat ireki zen nire bidean*
*Hura hartu eta ezagutzen ez nituen lekuetara eraman ninduen*
*Lurraldean sustraitutako pertsonak bizi ziren bertan*
*Altxor txiki eta handiak gordetzen zituzten*
*Beren seme-alabentzat gordetzen zuten arbasoen ondarea*
*Eta garapenaren eta kontserbazioaren arteko oreka hartaz gozatu nuen*
*Jendearekin, inguruarekin, ohiturekin eta memoriarekin gozatu nuen*
*Herri baten memoria bere bideetan ere badagoelako.*

*Un sendero se abrió en mi camino*
*Lo tomé y me llevó a lugares que no conocía*
*Donde vivían personas arraigadas a un territorio*
*Que guardaban pequeños y grandes tesoros*
*Un legado de sus antepasados que guardaban para sus hijas e hijos*
*Y disfruté de aquel equilibrio entre desarrollo y conservación*
*Disfruté de la gente, del entorno, de sus costumbres y su memoria.*
*Porque la memoria de un pueblo está también en sus caminos.*



# Urdaibaiko ibilbide laburrak

## Senderos de Pequeño Recorrido de Urdaibai

PR

Urdaibaiko Ibilbide Laburren Sareak 10 ibilbide ditu, eta gehienak egun erdian egin daitezke. Gainera, ibilbideetatik gertu dauden interesguneetara hainbat desbideratze egitea proposatzen dizuegu, bisitatzea merezi dutenak.

La Red de Senderos de Pequeño Recorrido de Urdaibai está compuesta por 10 itinerarios que se pueden realizar en su mayoría en media jornada. Os proponemos, además, varias derivaciones a puntos de interés cercanos a los recorrido, que bien merecen ser visitados.






# PR -BI 160

## Ibilbidea txakolinen itzalpean. Caminando a la sombra del txakoli.

| Km | | |
|---|---|---|
| 7,5 | 50m | 2h |

1 2 2 2








Errege bidea
*Camino real*





Mahats-parrak
*Emparrados*

Busturiko auzo-bide asko txakolinerako mahats-parrez inguratuta zeuden. Ibilbide erakargarri honek Busturia eta Sukarrieta arteko bide horietako batzuk zeharkatzen ditu, hain zuzen, gure arbasoen ondare bikaina erakusten digun bitartean.

Axpetik abiatuta, ibilbidea Sukarrietarantz doa errege bide zaharretik; izan ere, haren galtzadaren zati bati eutsi zaio tarte horretan. Sukarrietak ongi etorria emango digu estuarioko ohiko paisaiara, non gure ingurua urdinez eta berdez tindatzen den, hondartza, larre, baso eta baserriz osatutako mosaiko batean Axperako bidean ezagutuko duguna.

Axpeko bidezidorra Ekoetxea-Urdaibaira igotzen da, Madariaga dorretxea dagoen tokira, eta San Kristobal auzorantz jarraitzen du. Han, eskualdeko errepidea gurutzatu ondoren, Altamirara hurbilduko da.

Mahats-parrez inguraturiko bide zaharretatik Axpera joango gara berriro, artadiaren mugatik Atxapunta inguratzen duen bidetik.

Muchos de los caminos vecinales de Busturia solían estar acompañados de emparrados de Txakoli. Este atractivo itinerario recorre algunos de esos caminos entre Busturia y Sukarrieta mientras nos descubre un excelente patrimonio, herencia de nuestros antepasados.

Partiendo de Axpe el sendero se dirige hacia Sukarrieta por el viejo camino real, que conserva en este tramo parte de su calzada. Sukarrieta nos da la bienvenida al paisaje típico del estuario, donde nuestro entorno se tiñe de azul y verde, un mosaico formado por playas, pastos, bosquetes y caseríos que iremos recorriendo camino a Axpe.

Asciende el sendero de Axpe a Ekoetxea-Urdaibai, ubicado en el solar de Torre Madariaga, para continuar hacia el barrio de San Cristóbal, donde tras cruzar la carretera comarcal se acerca a Altamira.

Por viejos caminos emparrados, el sendero nos acerca nuevamente a Axpe, a donde llegaremos por el camino que por el límite del encinar bordea Atxapunta.

plana

## eta gero...
## y después...

Zatoz Txatxarramendira, hondartza txikiz inguratuta dagoen irlara eta ezagutu eizu bertan dagoen parke botanikoa. Gozatu San Antonio eta Toña hondartzez; haurrentzako jolas-parkea dute.

Bisitatu Madariaga dorretxe ederrean dagoen Ekoetxea-Urdaibai. Ez galdu erakusketa eta gozatu inguruaz. Zatoz Altamira auzo lasaira, bertako tabernaren batean indarrak berritzeko aukera izango baituzu, eta hegaztiak gustoko badituzu, ez galdu San Kristobaleko behatokia bisitatzeko aukera.







Acércate a la isla de Txatxarramendi, rodeada de pequeños arenales, y recorre su parque botánico. Disfruta de las playas de San Antonio y Toña, que cuentan con parque de juegos infantiles.

Visita Ekoetxea-Urdaibai, ubicado en la bella torre Madariaga. No te pierdas su exposición y disfruta de su entorno. Aproxímate al tranquilo barrio de Altamira, donde podrás reponer fuerzas en alguno de sus bares y si te gustan las aves, no pierdas la ocasión de visitar el observatorio de San Cristóbal.




# PR -BI 161

## Artadiaren bihotz-bihotzean. En pleno corazón del encinar.

| Km | Desnivel | Tiempo |
|---|---|---|
| 8,4 | 220m | 2h 30' |

1 2 2 2




Atxarre mendiaren inguruko ibilbide biribila. Artadian, landazabalean eta kostaldeko hondartzetan barrena doan ibilaldia.




*Sendero circular en torno al monte Atxarre. Un recorrido por el encinar, la campiña y las playas del litoral costero.*









Atxarreko ibilbide biribilak Urdaibaiko baso erakargarri eta zeharkaezinenetako batean sartzera gonbidatzen gaitu, artadi kantauriarran. Kanalatik abiatuta, San Martin baselizara hurbiltzen da ibilbidea, artadian korridore natural batetik sartzeko. Bertan, basoa eta karsta ageri dira.

Dantzalekuko bidegurutzera iristen da bidea, sorginen biltokira, Atxarre tontor hurbilaren itzalean. Izan ere, tontor zoragarri honetako ikuspegia opari bat da begientzat.

Dantzalekutik Akordarantz jarraitzen du bideak, eta basoak baserriko paisaiari eta bertako ekosistemari, landazabalari, lekua uzten dionean iritsiko gara bertara.

Ibilbideak Akorda, Gametxo eta Antzora auzoak zeharkatzen ditu, estuariora hurbiltzen gaituen bitartean, non Laidako hondartza ederra dagoen, kostaldeko paisaia eder honetako altxorretako bat. Arketako kanpinaren ondotik igaro ondoren, errepidetik urrundu eta Kanalara itzuliko gara barrualdeko bide batetik.

El sendero circular de Atxarre nos invita a adentrarnos en uno de los más impenetrables y atractivos bosques de Urdaibai, el encinar cantábrico. Partiendo de Kanala el sendero se acerca a la ermita de San Martin para entrar en el encinar por un pasillo natural, donde afloran tanto el bosque como el karst.

El sendero alcanza el cruce de Dantzaleku, lugar de reunión de brujas, a la sombra de la cercana cima de Atxarre, cuya visita es incuestionable. Y es que las vistas desde este fantástico mirador son un regalo para los ojos.

Desde Dantzaleku el sendero continúa hacia Akorda, a donde llegaremos cuando el bosque deje paso al paisaje del caserío y su ecosistema, la campiña.

El sendero cruza los barrios de Akorda, Gametxo y Antzora, mientras nos acerca al estuario, donde se encuentra la bella playa de Laida, una de las perlas de este bello paisaje costero. Tras pasar junto al camping de Arketa el sendero se aleja de la carretera para volver a Kanala por un camino del interior.

plana

## eta gero...
## y después...

Zatoz Laidako hondartzara. Gozatu hondartzan paseatuz eta Izaro uhartearen aurrean bainua hartuta. Ez ezazu galdu uretako jarduerak egiteko aukera (paddle surfa, kayak, surfa, kanoak...). Bertako tabernek Urdaibaiko terrazarik pribilegiatuenetakoak dituzte.

Ibilbideko adar batek Kanala auzora hurbiltzen gaitu. Nabarmentzekoa da bertako hilerriaren edertasuna eta handik dagoen ikuspegi zoragarria, seguruenik padurako barnekaldeko ederrenetarikoa. Inguruan badagoz bista izugarriak ere.





Acércate a la playa de Laida. Sus terrazas son unas de las más privilegiadas de Urdaibai. Disfruta de un paseo por el arenal y de un baño frente a la isla de Izaro. No dejes de practicar actividades acuáticas como el paddle surf, kayak, surf, canoas...

Una de las derivaciones del sendero nos acerca al barrio de Kanala. Destaca la belleza de su cementerio y las vistas que nos ofrece este enclave, una de las más bellas de la marisma hacia el interior, una estampa que también podremos disfrutar desde sus terrazas.




# PR -BI 163

## Errota erreka batetik ibilbidea. Recorrido por un arroyo molinero.

Km 4,4 | 50m | 1h 25'

1 2 2 2














Gautegiz-Arteagako paisaiak eskaintzen dizkigun ikuspegiak askotarikoak eta bikainak dira. Ibilbide biribil erraz honek horietako batzuetara hurbilduko gaitu. Zelaietatik abiatuta, udaletxearen parean, ibilbidea Errekalderantz doa. Bertan, errota-erreka eder batek (Olalde) artadiaren muga zeharkatzen du, Ereñozarreko piramide-formako gailurraren itzalean. Oletako eta Goikoerrotako errotek oraindik kontserbatzen dituzte beren anteparak edo makineria hidraulikoa.

Errekastoa inguratuz, Olangoitiko auzo-bidera iritsiko gara, Andra Mari elizara, Montorre eskola txikiaren ondotik igaro ondoren. Errepidera jaitsiko gara eta, gurutzatu ondoren, Arteagako gazteluaren ingurura helduko gara.

Ibilbideak auzo-bideetatik jarraitzen du Orueta auzoraino, non Urdaibai Bird Center dagoen. Auzo-bideetatik jarraituko dugu Zelaietara heldu arte, eta, parkearen ondotik igaro ondoren, udaletxe plazara iritsiko gara.

Son diversas y exquisitas las vistas que nos ofrece el paisaje de Gautegiz-Arteaga. Este fácil recorrido circular nos acercará a algunos de ellos. Partiendo de Zelaieta, frente al ayuntamiento, el recorrido se dirige hacia Errekalde, donde un bello arroyo molinero (Olalde) recorre el límite del encinar, a la sombra de la cima piramidal de Ereñozar. Los molinos de Oleta y Goikoerrota aún conservan sus anteparas o maquinaria hidráulica.

Bordeando el arroyo alcanzaremos el camino vecinal de Olangoiti, que asciende hasta la iglesia de Andra Mari, tras pasar junto a la pequeña escuela de Montorre. Descenderemos a la carretera para, tras cruzarla, alcanzar las inmediaciones del castillo de Arteaga.

El sendero continúa por caminos vecinales hasta alcanzar el barrio de Orueta, donde se alza el Urdaibai Bird Center. Continuaremos por caminos vecinales hasta alcanzar nuevamente Zelaieta, donde tras pasar junto al parque llegaremos nuevamente a la plaza del ayuntamiento.

plana

## eta gero... y después...

Zatoz Urdaibai Bird Centerrera eta ezagutu hegaztien munduko sekretu eta migrazioari buruzko guztia. Gainera, Oruetan eta Ozollon behatokiak bisita ditzakezu.

Gure ibilbideko adar polit bat Ozollo aldera abiatzen da. Bertan, mareen errota zaharra ageri da eta, bere inguruan, San Lorentzo baseliza ederra dago.

Zelaietak, Gautegiz-Arteagako gune nagusiak, tabernak, parkeak eta berdegune zabalak ditu atseden hartzeko.






Acércate al Urdaibai Bird Center y descubre los secretos de las aves y su migración. Además puedes visitar los observatorios en Orueta y Ozollo.

Un bonito paseo parte de nuestro recorrido para acercarse a Ozollo, donde se esconde el viejo molino de mareas y en cuyo entorno cercano está la bella ermita de San Lorenzo.

Zelaieta, núcleo principal de Gautegiz-Arteaga, cuenta con bares, parques y amplias zonas verdes para descansar.




# PR -BI 165

## Itsaso aldera ibilbidea.
## Ruta hacia el mar.

| Km | | |
|---|---|---|
| 6,5 | 165m | 2h |




1 2 2 2












Artadian ibiltzea, Ogoñoko haitzak eskaintzen dizkigun ikuspegi bikainez gozatzea eta Elantxobeko eta Ibarrangeluko herriak ezagutzea dira ibilbide honek eskaintzen dizkigun ekintza erakargarrietako batzuk.

Ibarrangelutik abiatuta, ibilbidea baserrien artean doa Bermokizen dagoen Elantxobeko hilerriraino, non ibilbidea bitan banatzen den. Ogoñorako igoera eskuineko bidetik egingo dugu, gure kostaldeko ikuspegi ederrez gozatzen dugun bitartean. Auzo-bidea utzi eta basoa gurutzatuz Ogoñoko talaiaraino igotzen den bidezidorrean barrena joango gara. Bai talaian bai Ogoñoko tontorrean erortzeko arriskua dago eta haizeak gogor jotzen du; beraz, kontuz ibiltzea gomendatzen dugu, batez ere umeekin joanez gero.

Talaiaren ikuspegiaz gozatu ondoren, Bermokizera itzuliko gara eskuineko bidezidorretik, Elantxobeko hilerrira, eta handik Ibarrangelura, bide beretik.

Caminar por el encinar, disfrutar de las espléndidas vistas que nos ofrece el peñón de Ogoño y descubrir los pueblos de Elantxobe e Ibarrangelu son algunos de los atractivos que nos ofrece este recorrido.

Partiendo de Ibarrangelu el sendero discurre entre caseríos hasta el cementerio de Elantxobe, en Bermokiz, donde el itinerario se bifurca. Realizaremos la ascensión a Ogoño por el camino de la derecha, mientras disfrutamos de las bellas vistas de nuestra costa. Abandonamos el camino vecinal para adentrarnos por el sendero que cruzando el bosque asciende hasta la atalaya de Ogoño. Tanto la atalaya como la cima de Ogoño son lugares expuestos a fuertes pendientes como a la fuerza del viento, por lo que recomendamos se actúe con precaución, sobre todo en el caso de acudir con menores.

Tras disfrutar de las vistas de la atalaya regresaremos a Bermokiz por el sendero de la derecha, que va a parar al cementerio de Elantxobe, desde donde regresaremos a Ibarrangelu por el mismo camino.

plana

## eta gero...
## y después...

Zatoz Elantxobeko herri bitxira, ibili kaleetan eta portuko kai-muturrean barrena. Gozatu tabernetako terrazez eta jatetxeetako arrain freskoaz.

Ibarrangelu ere bisitatu. Bertan, San Andres eliza ageri da, Euskal Kapera Sixtinoa deritzona, polikromatutako zur landuzko bere ganga bikainari esker. Ezagutu Laida eta Lagako hondartzak ere. Oinezkoen pasealeku batek Ibarrangelu eta Laga hondartza lotzen ditu.





Acércate el pintoresco pueblo de Elantxobe, recorre sus calles y pasea por los rompeolas del puerto. Disfruta de las terrazas de sus bares y del pescado fresco de sus restaurantes.

No dejes de visitar Ibarrangelu. Allí se alza la iglesia de San Andrés, conocida como la Capilla Sixtina Vasca gracias a su extraordinaria bóveda de madera tallada policromada. Descubre también las cercanas playas de Laida y Laga. Un paseo peatonal une Ibarrangelu con la playa de Laga.




# PR -BI 167

## Golako ibilbidea.

## Senda del Golako.

| Km | Desnivel | Tiempo |
|---|---|---|
| 5 | 130m | 1h 45' |

1 △ 2 2 2







Natura- eta kultura-interes handiko ibilbidea, Golako errekatik gertu, Zarra (Mendata) eta Elexalde-Arratzu artean.

*Recorrido de gran interés naturalístico y cultural en un entorno cercano al río Golako, entre Zarra (Mendata) y Elexalde-Arratzu.*


Olazarreko presa
*Presa de Olazarra*




Donejakude bidea
*Camino de Santiago*

Oso gutxitan biltzen dira espazio txiki batean horrenbeste elementu hain erakargarri, paisaia bitxia betetzen dutenak eta ingurune honen iraganera hurbiltzen gaituztenak. Bertan, Golako erreka, ibaiertzeko basoa eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako harizti zabalena nabarmentzen dira. Golako ibilbideak balio kultural handiko baliabide ugari biltzen ditu bere baitan, besteak beste, Zarratik Elexalderako galtzada, Artzubiko zubia, Montolaneko dorretxea, San Pedro baseliza, San Tomas eliza eta Olazarrako burdinola.

Bi biribil txikik osatua, lehenik Elexalde-Arratzu eta Zarra arteko bidea egitea gomendatzen dugu, ondoren Olazarreko begizta bisitatzeko.

Lehenengoak hariztian barneratzen gaitu eta Donejakue Bidearen Kostaldeko Ibilbidearen zati bat zeharkatzeko aukera ematen digu. Ez galdu Montolango dorre bitxiak (XVI. mendekoa) eskaintzen dituen ikuspegiak. Bigarrenak Golako ibaiertza erakutsiko digu, bere presa eta errotekin.

Rara vez se concentran en un espacio reducido tantos elementos de espectacular atractivo, que inundan el insólito paisaje y nos acercan al pasado de este entorno. Destacan en este el río Golako, su bosque de ribera y el robledal anexo, el más extenso de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. La Senda del Golako esconde además un buen número de recursos de gran valor cultural entre los que sobresalen la calzada de Zarra a Elexalde, el puente de Artzubi, la casa torre de Montolan, la ermita de San Pedro, la iglesia de Santo Tomás y la ferrería de Olazarra, entre otros.

Compuesto por dos pequeños bucles recomendamos recorrer primero el camino entre Elexalde-Arratzu y Zarra para posteriormente visitar el bucle de Olazar.

El primero nos adentra en el robledal y nos permite recorrer parte de la Ruta de la Costa del Camino de Santiago. No os perdáis las vistas que ofrece la singular torre de Montolan (s. XVI). El segundo nos descubrirá la ribera del Golako, con su presa y molino.

plana

## eta gero...
## y después...

Joan Loiola-Arratzura, lekuko gastronomiaz gozatzeko, Arrolako Oppidumaren interpretazio zentroa den Arrolagunea bisitatzeko, edo bertako frontoian edo haurrentzako jolas parkean jolasteko.

Bisitatu Elexalde-Mendata. Bertan, taberna-jatetxe bat eta interpretazio-zentro bat aurkituko dituzu, eta ondo pasatzeko aukera izango duzu haurrentzako jolasgune zabalean edo udal frontoi estalian. Gernikako arbolaren kimu bat dago udaletxearen alboetako batean.





Acércate a Loiola-Arratzu donde podrás disfrutar de la gastronomía local, visitar el Arrolagune, centro de interpretación del Oppidum de Arrola, o jugar en su frontón o en el parque de juegos infantiles.

Visita el núcleo de Elexalde-Mendata, donde encontrarás un bar-restaurante y un albergue-centro de interpretación y podrás divertirte en la extensa área de juegos infantiles o en el frontón municipal cubierto. Un retoño del árbol de Gernika se alza en uno de los laterales del ayuntamiento.




# PR -BI 174

## Urdaibaiko begiratokia.

## Mirador de Urdaibai.

| Km | Desnivel | Tiempo |
|---|---|---|
| 10,5 | 420m | 3h 30' |

1 2 2 3




Mendi-ibilbidea Illuntzarko larreetan eta Nabarnizko auzoetan zehar; oraindik jatorrizko baserri itxurari eusten zaio bertan.




*Recorrido montañero por los pastos de Illuntzar y los barrios de Nabarniz, donde el caserío aún conserva su esencia.*










Illuntzar mendiak talaia baten itxura du Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren gainean. Mendi-larreetatik, paisaiaren kontrastea ikus daiteke, paduren hondotik hasi eta Ereño eta Nabarniz arteko haran garaietaraino eta gure arroa mugatzen duten mendietaraino.

Mendi-ibilbide hau Nabarnizko Elexalde herri-gunetik abiatzen da, baso-pista batetik Illuntzar tontorrera igotzeko. Bertan, haizeak gogor jotzen du, eta ganadua lasai asko bazkatzen da. Bere mantu berdearen azpian leize ugari ezkutatzen dira, Ineritze adibidez, 330 metroko sakonekoa.

Ibilbidea larreetatik iparralderantz jaisten da, eta han Airoko pagadi ederra eta baserri zaharraren hondakinak gurutzatuko ditugu. Pista zabal batek Kurtziaganako bidegurutzera eramango gaitu eta handik Ikazurietara jaitsiko gara galtzada zaharretik.

Ikazurieta, Uribarri eta Elexalde artean landa izaerako auzo txiki hauen edertasunaz gozatzeko aukera izango dugu.

El monte Illuntzar se alza como una atalaya sobre la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. Desde sus pastos montanos se observa el contraste de su paisaje, desde el fondo de las marismas hasta los valles altos entre Ereño y Nabarniz y los montes que limitan nuestra cuenca.

De carácter montañero, este sendero parte del núcleo Elexalde de Nabarniz para ascender por una pista forestal a la cima del Illuntzar, donde el viento sopla con fuerza y el ganado pasta ajeno a nuestra presencia. Bajo su manto verde se esconden numerosas simas, como la de Ineritze, con 330 m de profundidad.

El sendero desciende por los pastos hacia su cara norte, donde cruzaremos el bello hayedo de Airo y las ruinas del viejo caserío. Una amplia pista nos acerca al cruce de Kurtziagana, desde donde descenderemos a Ikazurieta por la vieja calzada.

Entre Ikazurieta, Uribarri y Elexalde podremos disfrutar de la belleza de estos pequeños núcleos rurales, donde la vida discurre en torno al caserío.

plana

## eta gero...
## y después...

Ez galdu Nabarnizko babarrun eta menestra famatuak dastatzeko aukera. Egin erreserba eta gozatu. Nabarnizek frontoia eta haurrentzako jolasguneak ere baditu.

Zatoz Arrolako Oppidum-era, Bizkaiko Burdin Aroko herrixkarik garrantzitsu eta ederrenetako batera. Arrolagunera ere joan zaitezke, Loiola-Arratzuko herrigunean dagoen Interpretazio Zentrora. Deitu aurretik.





No pierdas la oportunidad de degustar las famosas alubias y menestra de Nabarniz. Reserva una mesa y disfruta.

Nabarniz también cuenta con frontón y zonas de juegos infantiles.

Acércate al Oppidum de Arrola, uno de los poblados de la Edad de Hierro más importantes de Bizkaia. También puedes acercarte a Arrolagune, su Centro de interpretación, ubicado en el núcleo de Loiola-Arratzu. Llama previamente.




# PR -BI 176

## Begirada bat iragan megalitikoari. Una mirada al pasado megalítico.

| Km | Desnivel | Tiempo |
| --- | --- | --- |
| 8,4 | 315m | 2h 30' |




Sukarrieta eta Mundakako kostaldeko herri bitxietatik Katillotxuko trikuharrietara doan mendi-ibilbidea.

*Recorrido montañero a la estación dolménica de Katillotxu desde los pintorescos pueblos costeros de Sukarrieta y Mundaka.*




Sukarrieta


Katillotxutik
*Desde Katillotxu*


Katillotxuko trikuharriak
*Dólmenes de Katillotxu*

Katillotxuko mendi-lerroak gure iraganeko altxor handi bat ezkutatzen du, 5 trikuharriz osatutako multzo megalitiko bat, eta ibilbide honek hurbilduko gaitu bertara.

Mundakako herri-gunetik abiatuta, Goitiz auzora igotzen da ibilbidea. Bertan, Mundakako baserri ederrenetako batzuk ikus ditzakegu, baratze, larre, heskai eta zuhaizti txikiekin. Goitiztik, Mundakako ur-biltegira jaisten da lehenengo pista handi bat, eta malda handitik jarraitzen du Katillotxu tontorrera iritsi arte. Han, estuarioaren ikuspegiaz, Laidako hondartzaz, Ogoñoko haitzaz, Atxarreko gailurraz eta mendi-mazelak estaltzen dituen artadiaren mantu berde zabalaz gozatu ahal izango dugu. Zeharkatu Katillotxu mendi-lerroa eta ezagutu trikuharrietako batzuk, historiaurreko hilobien arkitekturaren adibideak.

Ibilbidea Sukarrietara jaisten da, Munitizko dorretxearen ondotik igarota (XVI. mendea). Ibilbidearen azken zatiak Sukarrieta eta Mundaka arteko itsasertzeko bidea zeharkatzen du, Portuondoko kanpin eta begiratokitik igarota.

El cordal de Katillotxu esconde un gran tesoro de nuestro pasado, un conjunto megalítico formado por 5 dólmenes al que podremos acceder por este recorrido.

Partiendo del núcleo de Mundaka, el sendero asciende al barrio de Goitiz, donde podemos ver algunos de los más bellos caseríos de Mundaka, con sus huertos, pastos, setos y pequeños bosquetes. Desde Goitiz una amplia pista asciende primero al depósito de aguas de Mundaka, para continuar por una pendiente pronunciada hasta alcanzar la cima de Katillotxu. Allí disfrutaremos de las vistas del estuario, la playa de Laida, el peñón de Ogoño, la cima de Atxarre y el extenso manto verde del encinar que cubre sus laderas. Recorre el cordal de Katillotxu y descubre algunos de sus dólmenes, ejemplos de la arquitectura funeraria de la prehistoria.

El sendero desciende a Sukarrieta, pasando junto a la casa torre de Munitiz (s. XVI). El último tramo del itinerario recorre los caminos más costeros entre Sukarrieta y Mundaka, pasando por el camping y mirador de Portuondo.

plana

## eta gero...
## y después...

Zatoz Santa Katalina Puntara. Paisaiaren aldetik oso toki erakargarria da, eta, gainera, aisialdi-gune bat du. Gero, zeharkatu bere portu ederrera sartzen den pasealekua eta gozatu talatik dauden ikuspegiekin. Ibili kaleetan zehar eta gozatu taberna eta jatetxeetako eskaintza gastronomikoaz. Surfa gustuko baduzu, ez galdu Mundakako ezkerreko olatu ospetsua, Europako olaturik onena da eta.





Acércate a la Punta de Santa Catalina, un enclave de gran atractivo paisajístico que cuenta además con un área recreativa. Luego recorre el paseo que accede a su bello puerto y disfruta de las vistas desde la atalaya. Recorre sus calles y disfruta de la oferta gastronómica de sus bares y restaurantes. Si te gusta el surf, no te pierdas la famosa ola de izquierda de Mundaka, considerada la mejor ola de Europa.




# PR -BI 180

## Edertasun handiko haranetatik. Por los valles encantados.

| Km | | |
|---|---|---|
| 6 | 200m | 1h 30' |

1 2 2 2















1982an Ibarrola Omako Basoa margotzen hasi zenean, bazekien iritsiko zela lana itzaltzen joango zen eguna, bere mihisea, basoa bera, zahartu ahala... Hau da Land Art-eko obren liluragarritasuna, gehienak iragankorrak direla eta hauek bizitzeko esperientziak iraungitze-data duela. Gaur egun, ezin da artelan handi hau bisitatu, eta, beraz, Basondo eta Oma haran bukolikoetan barrena bidegorritik joan-etorriko ibilbide bat egitea proposatzen dugu, Lezika baserritik abiatuta eta baso-pista saihestuz.

Gozatu haranaren lasaitasunaz, baserrien edertasunaz, larreez, baratze txikiez eta etxe handi horiei lotutako eraikinen aniztasunaz, hala nola zubiak, lastategiak, auzo-eskolak, baselizak, karobiak, errotak...

Joan haraneko bidean barrena eta ondoren Bolunzuloko errotarara, non Oma ibaia kareharrizko mendiaren azpian galtzen den, eta Olakoerrota eta Goikoleara, haranaren ekialderago dagoen eremura, Kortezubik Nabarnizko behealdearekin muga egiten duen tokira.

Cuando en 1982 Ibarrola comenzó a pintar el Bosque de Oma sabía que llegaría el día en el que la obra se iría apagando, a medida que su lienzo, el propio bosque, envejeciera... Es lo fascinante de las obras de Land Art, la mayoría son efímeras y la experiencia de vivirlas tiene fecha de caducidad. Actualmente, no se puede visitar esta gran obra de arte, por lo que proponemos realizar un recorrido de ida y vuelta por el bidegorri a través de los bucólicos valles de Basondo y Oma, partiendo del caserío Lezika y eludiendo así la pista forestal.

Disfruta de la tranquilidad del valle, de la belleza de sus caseríos, sus pastos, sus pequeños huertos y de la diversidad de la construcciones vinculadas a estas grandes casas, como los puentes, los pajares, las escuelas de barriada, la ermita, los caleros, los molinos...

Recorre el camino del valle y acércate al molino de Bolunzulo, donde el río Oma se esconde bajo el monte calizo, y a los de Olakoerrota y Goikolea, en la zona más al este del valle, donde Kortezubi limita con la zona baja de Nabarniz.

plana

## eta gero... y después...

Zatoz Santimamiñeko interpretazio-gunera. Gozatu kobazuloko bisita gidatuez eta ezagutu antolatzen dituzten jarduera bereziak, iraganera bidaiatzeko aukera izateko, lehen bizileku haietan nola bizi ziren ulertu edo ikerketa arkeologikoaren ildoak ezagutzeko, Aita Barandiaranengandik gaur egunera. Deitu eta egin erreserba aurretik.

Atsedenleku zabala dago Santi Mami baselizaren inguruan. Bertan atseden hartzeko eta egun lasaia igarotzeko aukera izango duzu.





Acércate al punto de interpretación de Santimamiñe. Disfruta de las visitas guiadas a la cueva y descubre las actividades especiales que organizan, permitiéndonos viajar al pasado, comprender cómo vivían aquellos primeros moradores o conocer las líneas de investigación arqueológica, desde Aita Barandiaran a la actualidad. Llama y reserva con antelación.

Una amplia área recreativa se extiende en torno a la ermita de San Mamés (Santi Mami), donde podrás descansar y seguir disfrutando de la tranquila jornada.




# PR -BI 181

## Estuarioaren bihotzetik.

## Por el corazón del estuario.

| Km | Desnivel | Tiempo |
|---|---|---|
| 12,5 | 260m | 3h 30' |

1 2 2 3














Gernikako hiribildutik Lumoko elizateraino, gure herri ospetsuaren historian zehar egindako bidaia. Hiribildutik abiatuta, elizateraino igoko gara, galtzada zaharretik, eta Kosnoagarantz joango gara. Garai batean Burdin Aroko kastroa izan zen haren gailurra. Merezi du posizio nagusi horrek eskaintzen dituen ikuspegiez gozatzea, Baldatika errekaren arroan dagoen Goikoerrota errotara jaitsi aurretik. Aurrera egingo dugu Armotxerri auzorantz, non San Kristobal baseliza eta Urdaibai dorrea ageri diren, eta ondoren Forurantz jarraituko dugu. Foruko herrixka erromatarretik igaro ondoren, ibilbidea goi estuarioko pasabideetara jaisten da, eta han Oka ibaiaren ertzetan hazten diren ihitokiak gurutzatuko ditugu.

Oka gaineko zubia gurutzatu eta Barrutia auzora joango gara. Larreen, landaketen eta baserrien artean, ibilbideak Barrutiabaso ingurua zeharkatzen du, eta ondoren Barrutia auzora iritsiko gara. Handik, Gernikara itzuliko gara, Okaren eskuinaldetik.

Desde la villa de Gernika a la anteiglesia de Lumo, un viaje por la historia de nuestro emblemático pueblo. Partiendo de la villa ascenderemos a la anteiglesia por la vieja calzada para continuar hacia Kosnoaga, cuya cima albergó en el pasado un castro de la Edad de Hierro. Merece la pena disfrutar de las vistas que ofrece esta posición dominante antes de descender al molino Goikoerrota, en la cuenca del arroyo de Baldatika. Continúa el sendero hacia el barrio de Armotxerri, donde se alzan la ermita de San Cristóbal y la torre Urdaibai, para seguir hacia Forua. Tras pasar por el poblado romano de Forua el sendero desciende a las pasarelas del estuario superior, donde cruzaremos los juncales que crecen en las riberas del Oka, un hábitat de gran interés.

Cruzamos el puente sobre el Oka para dirigirnos hacia el barrio de Barrutia. Entre pastos, plantaciones y caseríos el recorrido cruza el entorno de Barrutiabaso para alcanzar el barrio de Barrutia, desde donde regresaremos a Gernika por la ribera derecha del Oka.

plana

## eta gero...
## y después...

Zatoz Batzar Etxera eta bisita ezazu Gernikako Arbola, Euskal Herriaren ikurra. Ezagutu gure historia eta ohiturak Euskal Herria Museoan eta gozatu bertako parke eta lorategietan ibiliz. Ez galdu gure gastronomia dastatzeko edo gure altxor gastronomikoak etxera eramateko aukera (babarrunak, piperrak, txakolina...).

Bisitatu Foruko erromatar herrixka, Bizkaiko erromatar aztarnategi garrantzitsuena. Udan bisita gidatuak eskaintzen dituzte.





Acércate a la Casa de Juntas y visita el Árbol de Gernika, símbolo del Pueblo Vasco. Descubre nuestra historia y costumbres en el Museo Euskal Herria y disfruta de un paseo por sus parques y jardines. No te pierdas la oportunidad de saborear nuestra gastronomía o de llevarte a casa alguno de nuestros tesoros gastronómicos (alubias, pimientos, txakoli...).

Visita el poblado romano de Forua, el yacimiento romano más importante de Bizkaia. En verano ofrecen visitas guiadas.




# PR -BI 182

## Barnealdeko bideetan barrena. Por los caminos del interior.

| Km | | |
|---|---|---|
| 10,2 | 325m | 2h 45' |

1 2 2 2







San Roman




Muxika dorretxea
*Torre de Muxika*

Muxika Urdaibaiko udalerri zabal eta ezezagunenetako bat da. Sosegua lagun, xarma handia du ingurune horrek.

Ariatza auzotik abiatuta, errepidearekiko paraleloan doa ibilbidea, San Migel baseliza dagoen Usparitxa auzoraino. Ibilbideak auzoa zeharkatzen du, eta baso-bide batetik jarraituz Txakale auzoaren gailurrean dagoen Errekatxugoikoa baserrira heltzen da. Bertatik, udalerriaren eta eskualdearen zati baten ikuspegi politaz gozatzeko aukera izango dugu.

Gorozikatik San Roman aldera doan baso-pista zabalera igoko gara. Han, Urkietako arte ikaragarriak, ongietorria egingo digu Besangizera. Auzo-bide polit batek Besangiz eta San Roman lotzen ditu, eta han baseliza eta Muxika dorrea ikusi ahal izango ditugu. Bidezidorra Kurtzero auzora jaisten da eta bertatik Bizkaibuseko zerbitzua erabiltzea gomendatzen dugu, Ariatzara itzultzeko.

Muxika es uno de los municipios más extensos y desconocidos de Urdaibai. El sosiego acompaña a este entorno que esconde un gran encanto.

Partiendo del barrio Ariatza el recorrido discurre paralelo a la carretera hasta alcanzar el sendero que asciende al barrio Usparitxa, donde se encuentra la ermita de San Migel. El itinerario cruza el barrio para continuar por un camino forestal hacia Errekatxugoikoa, caserío que se encuentra en lo más alto del barrio Txakale, desde donde podremos disfrutar de unas bonitas vistas del municipio y parte de la comarca.

Ascendemos a la amplia pista forestal que desde Gorozika se dirige hacia la zona alta de San Roman, donde una monumental encina, Urkieta, nos da la bienvenida a Besangiz. Un bonito camino vecinal une Besangiz con San Roman, donde podremos contemplar la ermita y la Torre de Muxika. El sendero desciende hasta el barrio de Kurtzero, desde donde recomendamos utilizar el Bizkaibus para volver a Ariatza.

plana

## eta gero...
## y después...

Ezagutu Muxikako auzoak. Zatoz Berroiara eta gozatu txakolinaren paisaiaz eta zaporeaz.

Ibarruri auzoan San Pedro baseliza duzu zain, Bizkaiko gotikoko bitxi txiki eta ederra (XII. eta XV. mendea). Urdaibaiko baserri nabarmen batzuk ere aurkituko dituzu bertan, hala nola Undajauregi eta Undaigoiti. Horietako batzuk altxor txikiak dituzte gorderik: labe zaharrak, ferratokiak, garbitokiak...





Descubre los barrios de Muxika. Acércate a Berroia y disfruta del paisaje y sabor del txakoli.

En el barrio de Ibarruri te espera la ermita de San Pedro (s. XII y XV), una pequeña y bella joya del gótico de Bizkaia. También podrás encontrar alguno de los caseríos más destacados de Urdaibai, como los de Undajauregi y Undaigoiti. Algunos de ellos conservan pequeñas joyas como viejos hornos, potros de herrar, lavaderos...

Ibilbide laburrek, ibilbide luzeek eta bide historikoek (Donejakue Bidearen kostaldeko ibilbideak edo Zin-bideko Ibilbide zaharrak, besteak beste) Urdaibaiko mendi-ibilien eskaintza osatzen dute.

Orain oinez jarraitzera gonbidatzen zaituztegu, baina eskualdea zeharkatzen duten ibilbide luzeagoetatik; ibilbidea osatzeko egun batzuk behar dira. Atseden hartzen duzuen bitartean, lurralde hauetako jendea ezagutzeko aukera izango duzue, herri txiki hauetako egunerokotasunean murgilduta bizi dena eta eskaintzen dizkizuten baliabideez maitasunez gozatzeko aukera izango duzue.

Urdaibai, urratsez urrats...

Pequeños recorridos, grandes rutas e históricos caminos como la ruta de la costa del Camino de Santiago o la vieja Ruta Juradera completan la oferta senderista de Urdaibai.

Os invitamos ahora a continuar a pie, pero por rutas más extensas que atraviesan la comarca y demandarán varios días para recorrerlas. En vuestro tiempo libre, tendréis la oportunidad de conocer a las gentes de estas tierras, sumergíos en el día a día de estos pequeños pueblos y disfrutar de los recursos que con cariño os ofrecen.

Urdaibai, paso a paso...



# Urdaibaiko ibilbide luzeak

## Senderos de Gran Recorrido de Urdaibai

Bi ibilbide luzek zeharkatzen dute Urdaibaiko Biosfera Erreserba, eta beste bide batzuk ezagutzera emango digute.

Dos senderos de Gran Recorrido cruzan la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, dándonos a conocer otros caminos.

## GR 38

### Ardoaren eta Arrainaren ibilbidea
### Ruta del Vino y del Pescado

GR 38ak iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du gure eskualdea, antzina mandazainek eta merkatariek Bizkaiko eta Arabako Errioxako arrantza-portu nagusien artean egiten zuten ibilbide zaharrari jarraituz, produktu horien eta beste batzuen merkataritzarako.

El GR 38 cruza nuestra comarca de Norte a Sur, siguiendo la vieja ruta que antiguamente recorrían arrieros y mercaderes entre los principales puertos pesqueros de Bizkaia y la Rioja Alavesa, para el comercio de estos y otros productos.

## GR 123

### Bizkaiko bira
### Vuelta a Bizkaia

GR 123ak Bizkaiko Lurralde Historikoaren mugak zeharkatzen ditu, 19 etapatan. Lea-Artibai eskualdetik datorren ibilbidea Urdaibain sartzen da Ean, eta kostaldea zeharkatu ondoren, Gaztelugatxen uzten du gure eskualdea, ondoren Uriben sartzeko.

El GR 123 recorre los límites del territorio histórico de Bizkaia en un total de 19 etapas. Procedente de la comarca de Lea-Artibai el sendero se adentra en Urdaibai por Ea y tras recorrer la costa, abandona nuestra comarca en Gaztelugatxe, para adentrarse en la vecina Uribe.





# GR38 etapa 6
## Maguma-Gernika-Lumo




Durangotik Gernikara doa etapa osoa. Gure eskualdeari dagokion tartean sartuko gara, Maume-Gernika tartean.

*La etapa completa va de Durango a Gernika. Aquí recogemos el tramo Mauma-Gernika correspondiente a nuestra comarca.*

Maumek ongi etorria eman digu Urdaibaira. Durango eta Bermeoko portua lotzen zituen bide zahar batetik egiten du hala.

*Maguna nos da la bienvenida a Urdaibai. Y lo hace por un viejo camino que unía Durango con el puerto de Bermeo.*

| Km | | |
|---|---|---|
| 19,3 | 590m | 6h |




2 2 2 4


San Lorenzo (Lamikiz)




Aristieta (Ajangiz)

Maumeko portalea gure eskualderako sarrera zen Durangotik zetorren eta gaur egun GR 38 zeharkatzen duen bidetik.

Maumebeiatik, ibilbidea Maumera doa, Astakurutzera igotzen den bide zaharretik jarraitzeko, Astoaganaren hegalean. Munitibarren sartu, galtzada zaharretik Oiz pistara jaitsi eta Ganbe baserrira iritsiko gara. Handik gertu Ganbeko elurzuloa dago, produktu freskoen garraioan izotzez hornitzeko erabiltzen zena.

Albiz aldera bidean, ibilbideak Golako ibaiaren arroa zeharkatzen du, non Ikadiako errota ederra dagoen. Mendatara iritsi baino lehen, haranaren hondoko ikuspegiez gozatzeko aukera izango dugu, non Gernika-Lumo nabarmentzen den. Hiribildu historikora iristeko, Mendatatik Berrekondo ibaiaren arrora jaitsiko gara, Lamikiz auzotik igarota, non San Lorentzo baseliza ederra dagoen. Ibai ertzetik doan bidetik joango gara Gernikara hiribildu ederreraino.

El Portal de Maguna era la entrada a nuestra comarca del camino que venía desde Durango y que recorre en la actualidad el GR 38.

Desde Maumebeia la ruta asciende a Maguna para continuar por el viejo camino que asciende a Astakurutze, en la ladera del Astoagana. Entra en Munitibar para descender por la vieja calzada a la pista del Oiz y alcanzar en su base el caserío Ganbe. Cerca se encuentra la nevera de Ganbe, donde se abastecerían de hielo para el transporte de los productos frescos.

Camino a Albiz el sendero cruza la estrecha cuenca del Golako, donde se encuentra el bello molino de Ikadia. Antes de alcanzar Mendata podremos disfrutar de las vistas del fondo del valle, donde destaca Gernika-Lumo. Para alcanzar la histórica villa descenderemos desde Mendata a la cuenca del río Berrekondo, pasando por el barrio de Lamikiz, donde se encuentra la ermita de San Lorenzo. Caminaremos junto al río hasta alcanzar la emblemática villa de Gernika.

plana

## eta gero...
## y después...

Gernika-Lumo historia paregabea eta berezko xarma dituen hiribildua da. Bidegurutze garrantzitsua izan zen iraganean, eta horrek merkataritza-gune gisa nabarmendu zuen. Ez ezazu galdu astelehenetako merkatu tradizionala, eta bereziki urriko azken astelehenean ospatzen dena, ospe eta jendetza handiarekin.

Zatoz Bizkaiko Erdi Aroko galtzadarik zaharrenetako bat ezagutzera: Maumeko portalea. Harlauzek bide horietan zebiltzan mandazainen sekretuak ezkutatzen dituzte. Ez galdu Maumeko gazta ospetsua.





Gernika-Lumo es una villa con una historia única y encanto propio. Fue en el pasado importante cruce de caminos, lo que la hizo destacar como villa mercantil. No te pierdas su tradicional mercado que se celebra los lunes, destacando especialmente el que se celebra el último lunes de octubre, con gran fama y afluencia.

Acércate al portal de Maguna, una de las calzadas medievales más antiguas de Bizkaia. Sus losas esconden los secretos de los arrieros que transitaban estos caminos. No te pierdas el famoso queso de Maguna.



# GR38 etapa 7
## Gernika-Lumo - Bermeo

Errege Bide zaharrak Gernika eta Bermeo lotzen zituen, antzinako bide harriztatuetatik bidaiariak eta mandazainak baitzihoazen.

*El viejo Camino Real unía Gernika con Bermeo, por antiguos caminos y vías empedradas por donde transitaban viajantes y arrieros.*

| Km | ⛰ | 🕓 |
|---|---|---|
| 19,2 | 330m | 5h 30' |




2 · 2 · 2 · 3




San Kristobal (Foruá)




Alarbingoikoa (Busturia)

Gernika-Lumotik, Foruko San Kristobal auzorantz doan errege bide zaharraren ibilgua jarraitzen du ibilbideak, non izen bereko baseliza eta Urdaibai dorrea ageri diren. Harrobiraino jaitsi eta Upeta ibaiaren paraleloan doan bidea hartuko dugu, ezkerretik Axbiribil mendia inguratuz. Bidea Karabizurietako auzo-errepidera iristen da. Auzo hori zeharkatu eta Forua eta Altamira lotzen zituen bide zaharra hartuko dugu. Jaitsieran, estuarioaren ikuspegi ikusgarriak izango ditugu, ohikoak ez direnak, non Busturia nabarmentzen den bere auzo, padura eta Axpeko haitzarekin.

Ibilbidea Altamiraraino jaisten da, eta auzoa zeharkatu ondoren, Mape ibaiaren ertzetik jarraitzen du, Busturiako Goierri aldera igotzeko. Bidean Sorbituagako menhirra, harribitxi megalitikoa, bisitatzeko aukera izango dugu. Urkiobetik, Katillotxu mendira igotzen da GR, ibilbide megalitikotik, ondoren Bermeora jaisteko, Demiku landa-auzotik igaroz. Bermeok ongietorria emango digu.

Desde Gernika-Lumo la ruta sigue el trazado del viejo camino real que se dirige hacia el barrio San Cristobal de Forua, donde se alza la ermita del mismo nombre y la torre Urdaibai. Descendemos hasta la cantera donde tomaremos el camino que asciende paralelo al río Upeta, bordeando por la izquierda el monte Axbiribil. El sendero alcanza la carretera vecinal de Karabizurieta, barrio que cruzaremos para coger el viejo camino que unía Forua con Altamira. En el descenso, disfrutaremos de unas espectaculares vistas del estuario, algo diferente a la que estamos habituados, donde destaca Busturia, con sus barrios, marismas y la peña Axpe.

La ruta desciende hasta Altamira, donde tras cruzar el barrio continúa por la ribera del río Mape para comenzar la ascensión hacia la zona de Goierri de Busturia. En el camino podremos visitar el menhir de Sorbituaga, una joya megalítica. Desde Urkiobe el GR asciende al monte Katillotxu, por la ruta megalítica, para descender posteriormente a Bermeo, pasando por el barrio rural de Demiku. Bermeo nos da la bienvenida.

plana

## eta gero...
## y después...

Bermeo Bizkaiko Jaurerriaren buru izatera iritsi zen, baita Kantauri isurialdeko portu nagusietako bat ere. Ibili alde zaharreko kaleetan barrena eta gozatu haren historiaz, gastronomiaz eta edertasunaz.

Bisitatu kofradia Bermeoko neskatilen eskutik eta kontserberak, bertan hegaluzea, bokarta eta itsasoko beste produktu batzuk zelan ontziratzen dituzten ikusi ahal izango duzu. Joan gero Arrantzaleen Museora eta arrantzaleen bizitzari, lanari eta itsas tradizioari buruzko guztia ezagutuko duzu.





Bermeo llegó a ser cabeza del Señorío de Bizkaia y uno de los puertos principales de la Cornisa Cantábrica. Piérdete por sus calles del casco antiguo y disfruta de su historia, su gastronomía y su belleza.

Visita la cofradía de la mano de las Neskatilas de Bermeo y las conserveras, donde podrás conocer cómo se embotan o enlatan el bonito del norte, las anchoas y otros productos del mar. Acércate luego al Museo del Pescador y descubre todo sobre la vida y el trabajo de los pescadores de nuestros puertos pesqueros.



# GR 123

## 11. etapa - etapa 11

## Ea - Laida (Ibarrangelu)

| Km | ▲ | 🕓 |
|---|---|---|
| 14,8 | 225m | 4h |




2 2 2 3












Eatik abiatuta, bidezidorra lehenengo Errege Bide zaharretik igotzen da Angelutxuraino, eta ondoren Natxituraino. Herri-gune hori zeharkatu ondoren, Arbolizerako (Ibarrangelua) errege bideari jarraituko diogu, Santa Ageda baselizaren ondotik igaroz.

Arbolizko atsedenlekuan atseden hartu ahal izango dugu Elexalde auzora jaitsi aurretik. Bertan dago San Andres eliza ederra.

Ibilbidea Ibinaga auzora igotzen da eta Elantxobeko hilerrira doan auzo-bidetik jarraitzen du. Pista zabal batetik Lagako errepidera jaitsiko gara eta egokitutako pasealekutik hondartza eder honetara joango gara. Lagatik Akordara igotzen da bidezidorra, eta handik Atxarre mendiko mantu berdean sartzen da. Gailurra bisitatu edo Kanala auzoraino jarraitu ahal izango dugu. San Martinbaselizaren ondoan eskuinera egingo dugu Laida hondartzara doan bidetik, Arketako kanpinaren ondotik igarota.

Partiendo de Ea el sendero asciende por el viejo Camino Real primero hasta el núcleo de Angelutxu para continuar posteriormente hasta Natxitua. Tras cruzar este núcleo rural, continuamos por el camino real hacia Arboliz (Ibarrangelua), pasando junto a la ermita de Santa Águeda.

Podremos descansar en el área recreativa de Arboliz antes de descender al barrio Elexalde, donde se alza la bella iglesia de San Andrés.

El Itinerario asciende al barrio de Ibinaga para continuar por el camino vecinal que llega al cementerio de Elantxobe. Por una pista amplia descenderemos hasta la carretera de Laga y por el paseo acondicionado nos acercaremos a esta bella playa. Desde Laga el sendero asciende a Akorda, desde donde se adentra en la alfombra verde del encinar del monte Atxarre. Podremos visitar la cima o continuar hasta el barrio de Kanala. Junto a la ermita de San Martín giramos a la derecha por el camino que va a la playa de Laida, pasando junto al camping de Arketa.

plana

## eta gero...
## y después...

Laida eta Lagako hondartzek uretako kirolak egiteko eskaintza zabala dute: surfa, piraguismoa, kanoak, stand up paddle-a... Informa zaitez eta erreserba egin aldez aurretik. Gogoratu babestutako gune batean zaudela, izan arduratsua.



Las playas de Laida y Laga cuentan con una diversa oferta para realizar deportes acuáticos como el surf, piragüismo, canoas, stand up paddle... Infórmate y reserva tu plaza de antemano. Recuerda que te encuentras en Urdaibai, sé responsable.





# GR 123

## 12. etapa - etapa 12

## Sukarrieta - Gaztelugatxe

| Km | | |
|---|---|---|
| 13,5 | 420m | 3h 30' |




2 2 2 3




San Pelaio






Urdaibaiko estuarioaren ahotik hurbilen dauden bideak dira Sukarrieta, Mundaka eta Bermeo artean zeharkatuko ditugunak, kostaldeko paisaiaren edertasunaz gozatzen dugun bitartean: hondartzak, itsaslabar, portua, Izaro uhartea eta Kantauri itsasoa, besteak beste. Bermeoko arrantza-hiribildu historikoa zeharkatu ondoren, landa-auzoetan sartzen da bidea, eta baserri, larre eta landaketa handiek kontrastea egiten dute ibilbidearen lehen zatiko itsas paisaiarekin.

Burgoa mendiaren magalean gora egin ahala, kostaldearen ikuspegiak zabaldu egiten dira eta eskualde mugakideetara iristen dira.

Burgoatik, pista zabal batetik Gaztelugatxera jaisten da ibilbidea eta San Pelaio baselizaren ondotik igaroko gara. GRak Bakiorantz jarraitzen du, baina zidor erakargarri bat uhartetxoaren oinarriraino jaisten da, non San Joan baseliza ageri den. Bisitatu ahal izateko, erreserbatu lekua aldez aurretik, edukiera mugatua baita.

Los caminos más cercanos a la desembocadura del estuario de Urdaibai serán los que recorreremos entre Sukarrieta, Mundaka y Bermeo, mientras disfrutamos de la belleza del paisaje costero, con sus playas, acantilados y puertos, con la Isla de Izaro y el mar Cantábrico de fondo. Tras cruzar la histórica villa pesquera de Bermeo el sendero se adentra en los barrios rurales, donde amplios caseríos, pastos y plantaciones contrastan con el paisaje marino del primer tramo del recorrido.

A medida que ascendemos por la ladera del monte Burgoa las vistas de la costa se van ampliando alcanzando las comarcas limítrofes.

Desde Burgoa el recorrido desciende por una amplia pista hacia Gaztelugatxe, a donde llegaremos tras pasar junto a la ermita de San Pelaio. El GR continúa hacia Bakio, pero un atractivo sendero desciende hasta la base del islote, sobre el que se alza la ermita de San Juan. Para acceder reserva tu plaza de antemano, el aforo es limitado.

plana

## eta gero...
## y después...

Zatoz Lurgorriko atsedenlekura. Paisaia aldetik oso erakargarria den bide txiki bat jaisten da Matxitxakoko lurmuturreko itsasargi zaharrean egokitutako itsas hegaztien eta zetazeoen behatokira, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren mugan.



Acércate al área recreativa de Lurgorri. Un pequeño sendero de gran atractivo paisajístico desciende hasta el observatorio de aves marinas y cetáceos acondicionado en el viejo faro del cabo de Matxitxako, en el límite de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai.



# Mendi-ibiliak baino gehiago

## Más que senderismo

Ingurune naturalerako sarbideak eta naturarekiko harremanak osasunean dakartzan onurek pertsona guztien eskura egon beharko lukete, haien gaitasunak edo mugak edozein direla ere.

Urdaibai-Busturialdea eskualde irekia da gure paisaiaz, aberastasun naturalaz, kulturaz eta historiaz gozatu nahi duten guztientzat. Horrek guztiak dakarzkigun onurak eskaintzeko irekia.

Ez galdu gure basoetara etortzeko eta Urdaibaiko Basoko Bainuen onurez gozatzeko aukera.

El acceso al medio Natural y los beneficios que sobre la salud aporta el contacto con la naturaleza deberían estar al alcance de toda persona, sean cuales sean sus capacidades o limitaciones.

Urdaibai-Busturialdea es una comarca abierta a todas las personas que quieran disfrutar de nuestro paisaje, nuestra riqueza natural, nuestra cultura y nuestra historia. Abierta a ofrecer los beneficios que todo esto nos aporta.

No te pierdas la oportunidad de acercarte a nuestros bosques y disfrutar de los beneficios de los Baños de Bosque en Urdaibai.





## Ibilbide osasungarriak
## Itinerarios saludables

Gure eskualdeak ibilbide osasungarrien eskaintza zabala du, eta auzo-bide zahar eta berriak zeharkatuta, Urdaibaiko herrien barruan mugikortasun osasungarriago eta iraunkorragoa ahalbidetzen du. Iturri, garbileku, eskola, auzo, merkatu eta abarretarako bide zaharrek Urdaibai oinez ezagutzeko aukera zabala osatzen dute gaur egun.

Nuestra comarca cuenta con una amplia oferta de itinerarios saludables, que recorren viejos y nuevos caminos vecinales, permitiendo una movilidad más saludable y sostenible dentro de los pueblos de Urdaibai. Los viejos caminos a las fuentes, lavaderos, escuelas, barrios, mercados... completan en la actualidad un abanico de posibilidades para conocer Urdaibai a pie.

Bizi-kalitatea Bienestar emocional Estimulua Sentsazioak
Calidad de vida Ongizate emozionala Sensaciones
Eragina osasunean
Ongizate fisikoa Estímulos Motivación
Impacto en la salud
Garapen pertsonala
Bienestar físico Desarrollo personal Motibazioa

## Baso-bainuak
## Baños de bosque

Olazarrako errotaren eta Artzubiko zubiaren (PR-BI 167) arteko Golako ibaiaren ertzak basoaz bere egoera naturalean gozatzeko leku bikainak dira. Bere soinuak, freskotasuna, ukimena eta usaina Golako errekak ematen duen lasaitasunarekin uztartzen dira ingurune honetan. Onura ugari ditu.

Las riberas del río Golako entre el molino de Olazarra y el puente de Artzubi (PR-BI 167) son un espléndido lugar para disfrutar del bosque en su estado natural. Sus sonidos, su frescor, su tacto, su olor se funden en este entorno con la tranquilidad que nos aporta el río Golako. Sus beneficios son innumerables.



# Informazio praktikoa

## Información práctica



## Turismo bulegoak
## Oficinas de turismo

### Bermeo

Lamera z/g - 94 617 91 54
www.bizibermeo.eus
turismoa@bermeo.eus

### Gernika-Lumo

Artekale, 8 - 94 625 58 92
www.gernika-lumo.net
turismo@gernika-lumo.net

### Mundaka

Joseba Deuna z/g- 94 617 72 01
www.mundakaturismo.com
turismo.mundaka@bizkaia.org

## Garraio publikoa
## Transporte público

### Bizkaibus

web.bizkaia.eus /es/web/bizkaibus
94 612 55 55

### EuskoTren

www.euskotren.eus
94 433 33 33

## Larrialdiak
## Emergencias

((112))
SOS DEIAK

### Gernika-Lumo

Ospitalea - hospital

Aita Luis Villasante- 94 627 40 00

# Ez galdu hauek bisitatzeko aukera...
# Y además, no dejes de visitar...

## Arrantzaleen Museoa
## Museo del pescador

Ezagutu euskal arrantza mundua
*Conoce el mundo pesquero vasco*

Ercilla dorrea / torre - 946 881 171
Torronteroko enparantza (Bermeo)
www.bizkaikoa.bizkaia.eus
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

## Euskal Herria Museoa
## Museo Euskal Herria

Gure herriaren oinatza
*La huella de nuestro pueblo*

Alegria Jauregia / Palacio - 94 625 54 51
Allendesalar, 5 (Gernika-Lumo)
www.bizkaikoa.bizkaia.eus
euskalherriamuseoa@bizkaia.eus

## Bakearen Museoa
## Museo de la Paz

Bonbardaketatik adiskidetzera
*Del bombardeo a la reconciliación*

Foru plaza 1 (Gernika-Lumo)- 94 627 02 13
www.museodelapaz.org
museoa@gernika-lumo.net

## Ekoetxea-Urdaibai

Begirada bat jasangarritasunerantz
*Una mirada a la sostenibilidad*

Madariaga dorrea / torre - 94 687 04 02
San Bartolome, 35 (Busturia)
www.ekoetxea.eus
info@torremadariaga.org

## Gernikako Batzar etxea
## Casa de Juntas de Gernika

Bizkaiko erakunde gorenaren egoitza
*Sede del máximo órgano institucional de Bizkaia*

Allende Salazar z/g - 94 625 11 38
www.jjggbizkaia.eus
batzar.etxea@bizkaia.eus

## Santimamiñeko koba
## Cueva de Santimamiñe

Historiaurreko santutegia. Gizateriaren ondarea
*Santuario Prehistórico. Patrimonio de la Humanidad*

Basondo (Kortezubi) - 94 465 16 57
www.bizkaikoa.bizkaia.eus
santimamine@bizkaia.eus

## Urdaibai Bird Center

Ornitologiaz gozatzeko
*Para disfrutar de la ornitología*

Orueta, 7 (Gautegiz-Artaga) - 94 625 11 57
www.birdcenter.org
urdaibai@birdcenter.org



urdaibai
basque reserve

www.turismourdaibai.com

URREMENDI
LANDA GARAPENA
DESARROLLO RURAL

Urdaibai
Biosfera Erreserba
Reserva de la Biosfera

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKADI
BASQUE COUNTRY
#Basquexperience

Euskadi, bien común
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO